**PROGRAMA**
3113 LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

ARDURADUNA
48 OSALAN
OSALANEKO ZUZENDARI NAGUSIA

HELBURUA

1. PRESTAKUNTZA.
2. IKUSKARITZA ETA KONTROLA.
3. KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA.
4. KUDEAKETAN TXERTATZEA.
5. ERAKUNDEEN KONPROMISOA.
6. INFORMAZIOA ETA SISTEMAK.
7. LANEKO OSASUNA.

BETETZE MAILA

1.) Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko 2007-2010eko Plan Zuzentzailean ezarritakoarekin bat etorriz, eta 2008rako Kudeaketa Planaren bitartez programatutako ekintzez baliatuz, programa pilotu bat egin da arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntzaren alorrean, haurrengana zuzenduta; halaber, Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuarekin kolaboratu da prestakuntzaren eta lanerako orientazioaren moduluaren edukiak definitzeko, laneko arriskuen prebentziorako prestakuntza-programak lanbide heziketaren alorrean gauzatzeko; on line prestakuntza-sistemarako proiektu bat landu da, enpresarien, zuzendarien, erdi mailako arduradunen eta autonomoen prestakuntzarako programa espezifikoekin; horrekin batera, prebentzio ordezkarien prestakuntza berraztertu da. Gisa berean, ikasgela iraunkorraren ikastaroak antolatu izan dira eraikuntza sektoreko langileentzat eta prestakuntza-ikastaroak prebentzio ordezkarientzat. Arlo horretan, jasotako eskariei erantzunez, laneko arriskuen prebentzioari buruzko goi mailako ikastaroak egiten dituzten prestakuntza-erakundeen ikuskapena egiten jarraitu da. Ezarritako helburuaren betetze maila egokia izan dela kontsideratzen da.

2.) Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko ikuskapen-jarduera segmentatzeko plan sektorial bat definitu da, eta, horren ildotik, 4.100 ikuskapen baino gehiago egin dira eraikuntza sektoreko enpresetan eta 2.000 baino gehiago industria sektoreko enpresetan. Horren ondorioz, eraikuntza-obretan egindako bisitei dagozkien txostenak egin dira, eta baita industria sektoreko enpresa txikietako arrisku-elementuak kontrolatzeko egindako bisitei dagozkien txostenak ere. Gisa berean, 90 ikuskapen-bisita baino gehiago egin dira enpresaz kanpoko prebentzio zerbitzuak kontrolatzeko. Beste alde batetik, prebentzio zerbitzuen eta auditoria-erakundeen kontrolerako lan

***PROGRAMA***
*3113 SEGURIDAD Y SALUD LABORALES*

*RESPONSABLE*
*48 OSALAN*
*DIRECTOR GENERAL DE OSALAN*

*OBJETIVO*

1. *FORMACIÓN.*
2. *INSPECCIÓN Y CONTROL.*
3. *CONCIENCIACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN.*
4. *INTEGRACIÓN EN LA GESTIÓN.*
5. *COMPROMISO INSTITUCIONAL.*
6. *INFORMACIÓN Y SISTEMAS.*
7. *SALUD LABORAL.*

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1.) De acuerdo con lo establecido en el Plan Director de Seguridad y Salud Laboral para el periodo 2007-2010 y a través de las acciones programadas a través del Plan de Gestión para el año 2008, se ha realizado un programa piloto en materia de formación en prevención de riesgos para la infancia, se ha colaborado con el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional para la definición de los contenidos del módulo de formación y orientación laboral en programas formativos de prevención de riesgos laborales para la formación profesional, se ha elaborado un proyecto de sistema de formación on line con programas específicos en formación de empresarios, directivos, mandos intermedios y autónomos, así como para la revisión de la formación de delegados de prevención. Igualmente se han venido organizando cursos del aula permanente para los trabajadores del sector de la construcción y cursos de formación para delegados de prevención. En esta área y en razón de las demandas se han seguido realizando las inspecciones de entidades formativas que vienen realizando los cursos superiores en materia de prevención de riesgos laborales. Se considera adecuado el grado de cumplimiento del objetivo marcado.*

*2.) Se ha definido un plan sectorial de segmentación de la actuación inspectora en materia de prevención de riesgos laborales, llevándose a cabo más de 4.100 inspecciones en empresas del sector de la construcción y más de 2.000 inspecciones en empresas del sector industria. Como consecuencia de ello se han realizado los informes correspondientes de las visitas realizadas a las obras de construcción así como para el control de los elementos de riesgo en pequeñas empresas del sector industrial. Del mismo modo se han realizado más de 90 visitas inspectoras en relación con la actuación de los servicios de prevención ajenos. Por otra parte y a través del grupo*

taldearen bitartez, laneko arriskuen prebentzioaren eremuko kanpo aholkularitzaren zenbait alderdi ezagutzera zuzendutako inkesta bat egin da. Halaber, laneko arriskuen prebentziorako teknikariei dagokienez, 12 postu gehiago sortu dira gaikuntza eta ikuskapen lanak egiteko. Helburu honen betetze maila oso egokia dela kontsideratzen da.

*de trabajo sobre el control de los servicios de prevención y entidades auditoras se ha establecido una encuesta dirigida a conocer aspectos relativos al asesoramiento externo en materia de prevención de riesgos laborales. Igualmente se ha incrementado en 12 dotaciones el número de técnicos de prevención de riesgos laborales para la realización de labores de habilitación e inspección. Se considera muy satisfactorio el grado de cumplimiento del objetivo.*

3.) Prebentzio Ordezkariaren zereginari buruzko diptiko eta triptikoak egin dira, lanaren alorrean jokatu behar duen rolari buruzko informatzeko. Gizartearen kontzientziazio maila orokorrari dagokionez, berriz, 4 komunikazio kanpaina gauzatu dira irratiaren eta idatzizko prentsaren bidez. Halaber, eskola-adineko pertsonala sentsibilizatzeko kanpainarekin jarraitu da, ikasgela mugikorraren bidez. Eremu horretan, Laneko Segurtasun eta Osasunaren III. Nazioarteko Batzarra egin da, prebentzioaren kultura hedatzeko eta gizartean dibulgatzeko, lanaren eremuko arriskuei dagokienez. Horrekin batera, zenbait jardunaldi tekniko antolatu eta egin dira, urteko kudeaketa Planaren zenbait jarduera-proiektu amaitu izanaren ondorioz. Orobat, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko argitalpen batzuk egin dira, bai alderdi teknikoei buruzkoak eta bai arauei buruzkoak. Enpresa txiki eta ertainetako istripuen kostuei buruzko informazioari dagokionez, kostu horiek kalkulatzeko tresna informatiko bat jarri da eskura gure Erakundearen web orrialdean; gainera, idatzizko komunikazioen bidez tresna horren berri eman da. Aipatutako helburuaren betetze maila egokia dela kontsideratzen da.

*3.) Se han elaborado dípticos y trípticos informativos sobre la figura del Delegado de Prevención en relación del papel que deben desarrollar en el ámbito laboral. En lo que respecta al grado de concienciación de la sociedad en general se han desarrollado 4 campañas de comunicación a través de radio y prensa escrita. Así mismo se ha seguido con la sensibilización del personal en edad escolar a través del aula móvil. En dicho ámbito se ha celebrado el III Congreso Internacional de Seguridad y Salud en el Trabajo en aras a la difusión y divulgación social de la cultura de la prevención frente a los riesgos en el ámbito del trabajo. Se han organizado y celebrado diferentes jornadas técnicas como consecuencia de la finalización de diferentes proyectos de actuación del Plan de gestión anual. Así mismo se han elaborado diversas publicaciones en materia de prevención de riesgos laborales, tanto en lo que se refiere a aspectos técnicos y normativos. En lo que respecta a la información sobre los costes de accidentabilidad en la pequeña y mediana empresa se ha incluido en la página web del Organismo una herramienta informática par el cálculo de dichos costes, habiéndose procedido asimismo a su difusión a través de comunicaciones escritas. Se considera satisfactorio el grado de cumplimiento del objetivo señalado.*

4.) Jarduera-eremu honetan, beren-beregi eratutako lan taldeen bitartez, arriskuen kudeaketarako gidaren proiektua garatu da, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko jardunbide egokien ezagutza eta hedapenerako tresna gisa. Beste alde batetik, tresna informatiko bat garatu da enpresek bidea izan dezaten beren laneko arriskuen prebentzioari buruzko ebaluazioak egiteko. Orobat, diru-laguntzak emateari buruz Erakundeak ezarrita dituen lau deialdiak bideratu dira, hots: laguntza eman zaizkie enpresei OSHAS 18001 ziurtagiria eskuratzeko edo berriztatzeko, laneko arriskuen kudeaketa sistemak ezartzeko; diru-laguntzak eman zaizkie dirua irabazteko asmorik gabeko erakundeei, laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza eta dibulgazioa gauzatzeko; laguntzak eman dira laneko arriskuen prebentzioaren alorreko ikerketak egiteko; eta makineria berriztatzeko laguntzak ere eman dira. Helburuaren betetze maila egokitzat jotzen da.

*4.) En este ámbito de actuación y a través de los grupos de trabajo establecidos, se ha desarrollado el proyecto de la guía para la gestión de riesgos como herramienta de conocimiento y difusión de las buenas prácticas en materia de prevención de riesgos laborales. Por otra parte se ha desarrollado una herramienta informática con objeto de que las empresas puedan realizar sus evaluaciones en materia de prevención de riesgos laborales. Asimismo se han resuelto las cuatro convocatorias de subvenciones establecidas por el Organismo, otorgándose ayudas a empresas para la obtención o renovación del certificado OSHAS 18001 para la implantación de sistemas de gestión de riesgos laborales; subvenciones para la promoción de la formación y divulgación en prevención de riesgos laborales a entidades sin ánimo de lucro; ayudas para la investigación en materia de prevención de riesgos laborales; y subvenciones para la renovación de maquinaria. Se considera satisfactorio el grado de cumplimiento del objetivo*

5.) Alor honetan zenbait jarduera gauzatu dira: Euskal Autonomia Erkidegoko herrilanen funtzionamenduari buruzko bilera egin dira Garraio eta Herrilan Sailarekin, abiadura handiko sarearen inguruan; Bizkaiko Foru

*5.) Se han venido realizando diversas actuaciones en este ámbito, manteniéndose reuniones en lo que respecta al funcionamiento de la obra pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el Departamento de*

Aldundiarekin hegoaldeko saihesbidearen obren inguruan; Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin, egitura dekretuaren aldaketaren inguruan eta izaera administratiboko pleguen izaera sozialeko klausulen inguruan; eta Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin, nekazaritza, basogintza eta arrantza sektoreko langileen arriskuen prebentzioaren inguruan. Beste alde batetik, laneko segurtasun eta osasunaren masterraren oroitidazkia egin da, laneko arriskuen prebentzioaren goi mailako teknikariaren prestakuntza Unibertsitatearen bidez txertatzeko asmoa sustatzeko. Gisa berean, zenbait bilera egin dira Fiskaltzarekin, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko ekintzak koordinatzeko xedez. Herri administrazioei, kooperatibei eta meategiei dagokienez, alor bakoitzari dagokion ikuskapena abiatu da. Helburuaren betetze maila oso egokia izan dela kontsideratzen da.

*Transportes y Obras Públicas en relación con la red de alta velocidad, con la Diputación de Bizkaia sobre las obras de la súper sur, con el Departamento de Hacienda y Administración Pública sobre la modificación del decreto de estructura y sobre cláusulas de carácter social en los pliegos de carácter administrativo, así como con el Departamento de Agricultura y Pesca en relación con el Plan Director de prevención de riesgos para los trabajadores del sector agroforestal y pesquero. Por otra parte se ha elaborado la memoria del master en seguridad y salud en el trabajo con objeto de promover la implantación de la formación de técnico superior de prevención de riesgos laborales a través de la Universidad. Igualmente se han venido realizando diversas reuniones con la Fiscalía con objeto de coordinar actuaciones en materia de prevención de riesgos laborales. En lo que se refiere a las administraciones públicas, cooperativas y minas, se ha puesto en marcha el funcionamiento de la inspección propia en dichos ámbitos. Se considera muy satisfactorio el grado de cumplimiento del objetivo.*

6.) Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko Behatokia abian jartzeko lana sendotzen jarraitu dugu. Erakundearen web orrialde berriaren diseinua egin da, eta beharrezkoa zen prestakuntza eman zaio pertsonalari. Istripuei buruzko informazio orokorraren sistema egokitzeko lan taldearen bitartez, informazio estatistiko ofiziala osatu da. Halaber, istripuei buruzko hiruhileko eta seihileko azterlanak egin dira, urteko kudeaketa planean aurreikusitakoaren arabera. Helburuaren betetze maila egokia dela kontsideratzen da.

*6.) Se ha proseguido con la consolidación de la puesta en marcha del Observatorio en materia de prevención de riesgos laborales. Se ha procedido al diseño de la nueva página web del Organismo así como a dar la formación necesaria al personal. A través del grupo de trabajo para la adecuación del sistema de información general de siniestralidad se ha complementado la información estadística oficial. Así mismo se han elaborado los estudios anuales y semestrales de accidentabilidad previstos en el plan de gestión anual. Se considera adecuado el grado de cumplimiento del objetivo.*

7.) Osasunaren zaintzaren alorrean, prebentzio zerbitzuetako oinarrizko unitate sanitarioen bisita eta txostenekin jarraitu da; horrekin batera, komunikatutako lanbide gaixotasunei dagozkien txostenak ere egin dira. Gisa berean, lan taldeen bitartez, arrisku psikosozialen inguruko ikerketa-proiektu bat definitu da. Helburuaren betetze maila egokitzat jotzen da.

*7.) En el ámbito de la vigilancia de la salud se ha proseguido con las visitas e informes correspondientes a las unidades básicas sanitarias de los servicios de prevención, efectuándose igualmente los informes correspondientes a las enfermedades profesionales comunicadas. Del mismo modo se ha definido a través de los grupos de trabajo un proyecto de investigación sobre riesgos psicosociales. Se considera satisfactorio el grado de cumplimiento del objetivo.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** <br> ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** <br> ***IMPORTE*** | |
| | (Milaka Euroak) <br> *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak <br> *1 - Gastos de Personal* | 8.494 | 89% |
| Funtzionamendu Gastuak <br> *2 - Gastos de funcionamiento* | 3.746 | 83% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak <br> *4 - Transf. y subv. para gastos corrientes* | 2.954 | 93% |
| Inbertsio Errealak <br> *6 - Inversiones reales* | 301 | 34% |
| Kapital Eragiketetako Transf. eta Dirulaguntzak <br> *7 - Transf. y subv. Con destino a operaciones de capital* | 1.125 | 100% |
| Finantza-Aktiboen gehikuntza <br> *8 - Aumento de activos financieros* | 38 | 54% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** <br> ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** <br> ***IMPORTE*** | |
| | (Milaka Euroak) <br> *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk <br> *3 - Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 32 | 70% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak <br> *4 - Transf. y subv. para gastos corrientes* | 17.208 | 100% |
| Ondare-Sarrerak <br> *5 - Ingresos Patrimoniales* | 6 | 251% |
| Kapital Eragiketetarako Transf. eta Dirulaguntzak <br> *7 - Transf. y subv. para operac. de capital* | 1.162 | 100% |
| Finantza-Aktiboen Gutxitxea <br> *8 - Disminución de activos financieros* | 58 | 6% |